

Prentsa oharra

Nota de prensa



Denboraren joana eta jendearen erabilera handia dela eta, hondatu egin da Katalunia Plazako haur-parkearen eta berdegunearen arteko oholtza. Pinu-egurrezko arrastelak ustelduta zeuden eta hautsita edo behera eginda haren gaineko ohol asko. Oholtza horrela izateak arriskua zuen nola handik pasatzen zen jendearentzat, hala ondoko jolasetan ibiltzen ziren umeentzat ere.

Hala, Hiri Mantentze Lanetako zinegotzi Miguel Angel Diezek esan du "egoera hori ikusita, kentzen hasi gara oholtza, arrastelak eta josteko material guztia. Ondoren, tokia saneatu eta altzairu galbanizatuzko arrastelak jarriko ditugu, 30 mm altuerakoak; eta oholtza teknologikoa hurrena, 90 metro koadroan".

Lanak egiteko 3 aste izan beharko dituzte, eta 17.560,73 € kostatuko da (BEZarena ere sartuta).